

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

### 5104

*EBAZPENA, 2021eko uztailaren 19koa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, Lehiatu Berria Programaren laguntzen Balorazio Batzordeko kideak izendatzen dituena. Programa horretan, nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko laguntzak ematen dira.*

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko ekainaren 16ko Aginduaren bidez, nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko laguntzak emateko 2021eko deialdiaren oinarriak onartu ziren (Lehiatu Berria Programa). Agindu horren 10. oinarriko 2. paragrafoak ezartzen duenez, «Inbertsio-eskaerak ebaluatu eta baloratzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da. Hiru bokalek osatuko dute, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko kideak izango dira hirurak. Horietako bat, zehazki, Enpresa Programaren arduraduna izango da. Beste biak, berriz, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikarien arteko aukeratuko dira, eta zuzendariaren ebazpen baten bidez izendatuko dira. Ebazpen horrek, era berean, adieraziko du nor izango den idazkaria eta nor batzordeburua. Batzordearen osaera Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren ebazpen baten bidez argitaratuko da. EHAAAn argitaratuko da, Batzordea eratu aurretik.»

Ikusirik 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, hauxe

#### EBAZTEN DUT:

Honako hauek izendatzea Balorazio Batzordeko kide. Batzorde horrek 2021eko ekitaldirako laguntza-eskabideak aztertu eta ebaluatuko ditu, eta dagokion ebazpen-proposamena egingo du. Laguntza horien deialdia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko ekainaren 16ko Aginduaren bidez egin zen, zeinak nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko laguntzak emateko 2021eko deialdiaren oinarriak onartu baitzituen (Lehiatu Berria Programa):

Batzordeburua:

Elisa Torre-Enciso Enciso, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako Enpresa Programaren arduraduna.

Bokalak:

M.<sup>a</sup> Carmen González Hernández, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikaria, idazkari jardungo duena.

Eduardo Castillo Díaz, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikaria.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 19a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,  
JAVIER PLASENCIA CUADRADO.